

Aimar Elozegi Ansa “Moio” kalea

“Izan nahi zuena izateko oztopo sozialak gainditu ezinik bere buruaz beste egin zuen transexuala”. Horixe dio Aimar Elozegi Ansa ‘Moio’ kalean jarritako plakak. 2007. urtean, bere buruaz beste egin zuen gazte hernaniarra zen ‘Moio’. 21 urte besterik ez zituen eta pertsona transa zen. Haren heriotzak astindua eragin zuen gizartearengan, Hernaniko herria transfobiaren aurka esnaraztea lortzeraino.

Berari esker, gizon eta emakume, neska eta mutil, genitalei lotutako kategoria naturalak baino eraikuntza sozialak direla ikasiz joan gara. Generoaren lausotasun eta malgutasuna irakasbide bihurtu du Aimarren heriotzak eta hura ez ahazteko eta des-ikasten jarraitzeko kale izena eman nahi izan diogu.

“Izena duena, badela” erakutsi ziguten aspaldi eta trans kolektiboa ikusaraztea eta herri gisa memoria ariketa egitea da kale honen asmoa, bai Aimarreatatik, bai guztionatik ere. Pertsona askeak izateko bidean, urratsa eta geltokia izan nahi du kaleak.

Kalea bihurtzeaz gainera, Moioaren bizitza eta haren heriotzak eragindako eztanda liburu batean jaso zuen Kattalin Miner hernaniar militante feminista eta Moioaren lagunak. “Moio. Gordetzea ezinezkoa zen” du izenburua liburuak, eta gure jendartean, oraindik ere, tabuak diren suizidioa eta trans kolektiboa hartzen ditu hizpide.

